

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

719

293/2025 EBAZPENA, otsailaren 6koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Begoña Antón Díaz-Caballero andreaki Galdakaoko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak esleitzen baitzaizkio Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

2235/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa onartu zen Galdakaoko Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Batzordeak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Begoña Antón Díaz-Caballero andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hari esleitzea Galdakaoko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Begoña Antón Díaz-Caballero andreaki Galdakaoko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak esleitzea Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Begoña Antón Díaz-Caballero andreak kudeaketa- eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko gerentearen ardurapean. Bai Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak garatu bitartean bai haiek amaitu ostean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion oinarrizko lanpostuan, eta hari lotutako oinarrizko eginkizunak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inolaz ere, Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da eginkizun horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Interesdunak, eginkizun horietan diharduen bitartean, osagarri berezi bat jasoko du erantzukizunagatik.

Bosgarrena.– Izendapen honek 2025eko otsailaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Interesdunari eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

2025eko otsailaren 14a, ostirala

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAng argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2025eko otsailaren 6a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,

EB (579/2023 Ebazpena, apirilaren 3koa, Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez ezartzen baita zuzendaritza-taldeko kideren bat ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo lanpostua hutsik dagoenean ordezteko araubidea).

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari medikoa,
DAVID CANTERO GONZÁLEZ.